**Órgano que se reúne:** Comité Ejecutivo de Udalsarea 21
**Coordina la reunión:** Ihobe, Secretaría Técnica

**Fecha:** 27 de abril de 2016
**Hora:** 16:30 h
**Lugar:** Palacio Euskalduna, 8ª Conferencia de Ciudades y Pueblos Sostenibles, Bilbao

**Asistentes:**

| Entidad | Nombre | Apellido 1 | Apellido 2 |
|---|---|---|---|
| Ayto. de Abanto y Ciervana-Abanto Zierbena | Maite | Etxebarria | Azpioleta |
| Ayto. de Amurrio | Josune | Irabien | Marigorta |
| Ayto. de Arrankudiaga | Itziar | Duoandikoetxea | González |
| Ayto. de Arrigorriaga | Carlos | Atucha | Gurtubai |
| Ayto. de Azpeitia | Aitor | Bereziartua | |
| Ayto. de Balmaseda | Álvaro | Parro | Betanzos |
| Ayto. de Barakaldo | Gorka | Zubiaurre | |
| Ayto. de Basauri | Joseba Andoni | Busquet | Elorrieta |
| Ayto. de Beasain | Leire | Artola | |
| Ayto. de Berango | Itziar | Aginagalde | |
| Ayto. de Bergara | Elena | Lete | García |
| Ayto. de Bermeo | Idurre | Bideguren | |
| Ayto. de Derio | Endika | Cienfuegos | |
| Ayto. de Donostia-San Sebastián | Miguel Angel | Diez | Bustos |
| Ayto. de Ermua | Carlos | Totorika | Izaguirre |
| Ayto. de Etxebarri | Loren | Oliva | Santamaría |
| Ayto. de Etxebarria | Jesús | Iriondo | Lejardi |
| Ayto. de Galdakao | Ibon | Uribe | Elorrieta |
| Ayto. de Galdakao | Ruben | Seoane | Rivero |
| Ayto. de Gernika - Lumo | María | Uribe | |
| Ayto. de Gordexola | Angela | Eguia | Liñero |
| Ayto. de Hondarribia | Juan Luis | Silanes | Aguirre |
| Ayto. de Ispaster | Garbiñe | Saez de Buruaga | Garralda |
| Ayto. de Laukiz | Salbador | Artaza | Argintxona |
| Ayto. de Lezama | Jon Ander | Aurrekoetxea | Artetxe |
| Ayto. de Llodio | Miren | Larrinaga | Enbeitia |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Ayto. de Llodio | Natxo | Urkixo | Orueta |
| Ayto. de Loiu | Josu Andoni | Begoña | Fernández de Arroiabe |
| Ayto. de Mallabia | Igor | Agirre | Barrientos |
| Ayto. de Mañaria | Endika | Jaio | |
| Ayto. de Maruri-Jatabe | Isaac | Amezaga | Larrazabal |
| Ayto. de Mungia | Ager | Izagirre | Loroño |
| Ayto. de Muskiz | Borja | Liaño | Abarrategi |
| Ayto. de Ordizia | Jose Miguel | Santamaria | Ezeiza |
| Ayto. de Orio | José Ángel | Zaldua | Iparraguirre |
| Ayto. de Santurtzi | Aintzane | Urkijo | Sagredo |
| Ayto. de Sondika | Xabier | Zubiaur | Agirre |
| Ayto. de Tolosa | Olatz | Peon | Ormazabal |
| Ayto. de Tolosa | Patxi | Amantegi | Zubiria |
| Ayto. de Trucios-Turtzioz | Jose Manuel | Coterón | Fernández |
| Ayto. de Zamudio | Igotz | Lopez | Torre |
| Ayto. de Zaratamo | Jon | Ajuria | Fisure |
| Ayto. de Zarautz | Gloria | Vazquez | Herranz |
| Diputación Foral de Alava | Amaia | Barredo | Martin |
| Diputación Foral de Gipuzkoa | Felix | Asensio | |
| Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco | Ana | Oregi | Bastarrika |
| Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco | Alexander | Boto | Bastegieta |
| Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco | Alejandra | Iturrioz | Unzueta |
| Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco | Fernando | Uriondo | Ispizua |
| Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco | Marko | Boronat | Elizalde |
| EVE - Ente Vasco de la Energía | Iñaki | García | |
| EVE - Ente Vasco de la Energía | Javier | Marqués | |
| Ihobe | Javier | Agirre | Orcajo |
| Mancomunidad de la Merindad de Durango | Aitor | López | |
| Mancomunidad de las Encartaciones | Esther | Lasa | |
| Mancomunidad de Servicios del Txorierri | Miguel Angel | Gaztelu | |
| URA Agencia Vasca del Agua | Iñigo | Ansola | |

## TEMAS TRATADOS SEGÚN EL ORDEN DEL DÍA

**1.- Bienvenida y apertura de la sesión**
Ana Oregi, Consejera de Medio Ambiente y Planificación Territorial del Gobierno Vasco da la bienvenida y agradece la asistencia a los y las presentes en nombre de la red.
A continuación da paso a Javier Agirre, director de la Sociedad Pública Ihobe, que en calidad de Secretaría Técnica de la red, procede a la lectura del órden del día.

**2.- Prioridades ambientales de la X Legislatura del Gobierno Vasco**
Toma la palabra de nuevo la Consejera Ana Oregi, subrayando la oportunidad de celebrar el encuentro en el marco de la 8ª Conferencia de ciudades y pueblos sostenibles, en la que ICLEI, la Red Mundial de Gobiernos Locales por la Sostenibilidad eligió Euskadi para su celebración. Esta elección es prueba del reconocimiento de los 15 años de andadura de la red y de sus miembros, los municipios. El nombre de Euskadi queda ligado al de la sostenibilidad local a través de la Declaración Vasca, la nueva hoja de ruta para las ciudades y pueblos europeos aprobada en la conferencia.
Traslada que antes de asistir a este Comité Ejecutivo ha participado en el Encuentro de Alcaldes y Alcaldesas (Mayors Sessions), presidida por el presidente del Comité de las Regiones, Marku Markkula que ICLEI ha organizado con los principales representantes municipales europeos presentes en la Conferencia, y al que ha sido invitada como presidenta de esta red.
En esa reunión organizada por ICLEI se presentaron las que van a ser las principales políticas marco con incidencia directa en nuestros pueblos y ciudades, con especial atención en la nueva Agenda Urbana Europea.
A continuación, recuerda los retos fijados en la anterior reunión del Comité Ejecutivo (julio 2014, Amurrio), en concreto, transformar Udalsarea 21 en una red abierta, contribuir a la modernización de la administración pública vasca y hacer efectiva una nueva gobernanza y contrato de la administración con la sociedad, y proyectar a Euskadi como un referente internacional en la aplicación efectiva de políticas de sostenibilidad, y realiza un balance positivo del cumplimiento de los mismos.
Prueba de ello es que en el encuentro de hoy se da entrada a nuevos miembros en la red, se dispone ya del V Informe de Sostenibilidad Local, y que la propia organización de la conferencia de ICLEI constituye uno de los mejores reconocimientos internacionales a la labor de Udalsarea 21 y la sitúa en el plano global como una referencia a seguir.
Traslada que uno de los temas presentes a lo largo de la conferencia es el marco internacional en el que se despliegan las políticas de sostenibilidad local, como es la Agenda Urbana de Europa, los Objetivos de Desarrollo Sostenible, Agenda 2030 de la ONU, y los acuerdos derivados de la Cumbre Mundial del Clima de Paris, ratificados desde Gobierno Vasco. En sintonía con este marco, Euskadi dispone de un amplio marco estratégico, como se recoge en la documentación entregada en la reunión, y remarca el papel clave que han jugado los municipios en su diseño, y que jugarán en su aplicación.
Resalta que el principal instrumento de planificación ambiental del País Vasco es el Programa Marco Ambiental 2020, uno de los 14 planes estratégicos que constituyen el eje de los compromisos adquiridos por el Gobierno Vasco ante la sociedad vasca. Este programa supone pasar de una política ambiental reactiva, a una política de anticipación a los retos ambientales, expresados en binomios:

- capital natural y biodiversidad,
- energía y cambio climático,
- salud y medio ambiente,
- territorio y de eficiencia de los recursos,
- educación y de compromiso con las generaciones futuras
- gobernanza y corresponsabilidad.

Además de este Programa existen estrategias ya aprobadas como la de Cambio Climático KLIMA 2050 y la de Geodiversidad; y en proceso de elaboración, como la de Biodiversidad 2030, la de protección del suelo 2030 y la de Educación para la Sostenibilidad. A estas estrategias se suma la aprobación del Plan de Prevención y Gestión de Residuos 2020 y la revisión de las Directrices de Ordenación del Territorio.
Ligado a esto último, se traslada que las Directrices de Ordenación Territorial van a ser revisadas con el objeto de diseñar la Estrategia Territorial de Euskadi para un horizonte de 20 años, en cuyo proceso se quiere contar con la colaboración y aportaciones de todos los miembros de Udalsarea 21.
Ana Oregi finaliza su intervención recomendando la integración de todos estos objetivos estratégicos en la política y gestión diaria municipal, y por último agradece nuevamente en nombre del Gobierno Vasco la implicación y compromiso de los municipios con la red y con la organización de la conferencia, ya que si Euskadi se ha convertido en referente internacional en materia de sostenibilidad ha sido gracias a la labor de sus miembros.

### 3. Proceso de revisión de las Directrices de Ordenación del Territorio

Toma la palabra Izaskun Iriarte, Viceconsejera de Administración y Planificación Territorial del Gobierno Vasco, trasladando la decisión adoptada en julio de 2015 por el Consejo de Gobierno de iniciar la revisión de las Directrices de Ordenación del Territorio, revisión basada en la participación ciudadana y la innovación y promoción de la gobernanza.
En este sentido, traslada el esfuerzo realizado para adecuar el procedimento marcado por la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco a la participación integral, de inicio a fin.
Se promueve la participación de la sociedad, estableciéndose un plazo de tres años para finalizar todo el proceso, aprovechando la celebración del congreso denominado Euskal Hiria, que se celebra anualmente hacia finales de año, para informar de la situación del mismo y los próximos pasos para su tramitación.
Resalta la nueva forma de proceder, por la cual la propuesta del Gobierno Vasco que recoge las contribuciones realizadas por los diferentes departamentos constituye el documento base presentado en noviembre de 2015 y abierto a la participación. El objetivo es aprobar el avance en noviembre de este año. De esta manera en noviembre de 2018 se presentará la versión definitiva de las Directrices de Ordenación del Territorio (DOT).
Informa que en estos momentos se está llevando a cabo la participación institucional y de órganos existentes, proceso que se va a realizar con los municipios a través de Eudel y la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco (C.O.P.U), así como a través de Udalsarea 21, con la formación de un grupo de trabajo específico lanzado ya para su puesta en marcha, y que tiene prevista la celebración de dos reuniones en 2016.
Por último, agradece a los Ayuntamientos que acogen reuniones presenciales de participación social, 15 reuniones en las áreas funcionales, y agradece la colaboración municipal recibida para la cesión de los locales y promoción de difusión de estos encuentros.
Finalmente recuerda que en la web irekia e ingurumena estará disponible toda la información y documentación de referencia, actas, contribuciones realizadas, etc.

### 4. Nuevo marco de regulación de Udalsarea 21. Cronograma del Plan Estratégico de la red 2020

Javier Agirre comienza recordando el principal objetivo del encuentro, reforzar el compromiso de todos los niveles de la administración vasca con la plataforma Udalsarea 21, como modelo de éxito de colaboración interinstitucional y como plataforma de acción de los ayuntamientos en materia de sostenibilidad.

Udalsarea 21, constituida el 20 de diciembre de 2002 por 16 municipios, está hoy integrada por 203 municipios, principales protagonistas de la red, los departamentos de Medio Ambiente y Política Territorial del Gobierno Vasco, representados por la Dirección de Transporte y URA, el Departamento de Salud del Gobierno Vasco y la Sociedad Pública de Gestión Ambiental Ihobe.

Recuerda que la colaboración institucional es el elemento clave que tracciona la red y aúna todos los esfuerzos en una misma dirección, lograr un desarrollo sostenible efectivo en los municipios vascos. Municipios con perfiles tan dispares en su configuración como son las capitales vascas junto a pequeños municipios rurales que comparten espacios de trabajo y experiencias enriquecedoras para ambos.

Ejemplo de la intensidad de su actividad, es que el próximo Comité Técnico que se celebrará en Iruraiz Gauna, el 15 de Junio de 2016, será la reunión número 50 de este órgano desde la constitución de la red.

Recuerda la aprobación del Plan de Gestión 2014-2015 en el último Comité Ejecutivo, donde se abordaron una serie de retos. La línea más importante en la que trabajar es la incorporación de más municipios a la red, y la segunda es la apertura a todos los agentes públicos vascos. Se ha avanzado en ambos aspectos y prueba de ello son los 203 municipios que conforman actualmente la red, y la asistencia de las Diputaciones Forales y el Ente Vasco de la Energía a este encuentro, como administraciones que han solicitado tomar parte activa en la red.

Informa que el 31 de diciembre de 2015 expiró el anterior marco regulador de Udalsarea 21 y por tanto desde la Secretaría Técnica se ha propuesto un nuevo marco inspirado en el texto inicial de constitución, que generó un amplio consenso entre todos los niveles de la administración y que ha sido testado con distintas administraciones, con un horizonte de vigencia a 2020, renovable de forma automática por acuerdo de las partes.

Este nuevo marco mantiene estable los principales órganos de gestión, el Comité Ejecutivo, el Comité Técnico y los grupos de trabajo temáticos para la acción que agilizan su labor y facilitan la implantación efectiva de las acciones que los municipios recogen en sus respectivos Planes de Acción Local, como es el de la revisión de las DOT antes mencionado, y la Secretaría Técnica, Ihobe.

En relación al presupuesto de gestión de la red, se mantiene la aportación principal de Gobierno Vasco a través de su Departamento de Medio Ambiente y Política Territorial, junto con las aportaciones, en formato de cuota o cofinanciación, de otras administraciones supramunicipales distintas a Departamentos de Gobierno Vasco con asignaciones de 15.000 €/anuales. En relación a los ayuntamientos, se elimina cualquier tipo de cuota para ellos.

Por tanto, a partir de este momento, se invita a todas las administraciones vascas a adherirse a Udalsarea 21, con el objetivo de que el 30 de junio de 2016 se tenga el mayor número de adhesiones posibles, y proceder a elaborar de forma conjunta el nuevo Plan Estratégico 2020 cubriendo las demandas y necesidades de las entidades locales vascas.

En septiembre de 2016 se comenzará con la elaboración de este documento, cuyas principales características son:

- Carácter abierto del trabajo en red para apoyar a los municipios a trabajar en políticas de sostenibilidad local.
- Alineación con las marcos estratégicos internacionales y regionales (los nuevos Objetivos de Desarrollo Sostenible, la Nueva Agenda Urbana Europea y la propia "Declaración Vasca: Nueva hoja de ruta para ciudades y pueblos europeos creando municipios productivos, sostenibles y resilientes para una Europa habitable e

inclusiva").

- Incorporación de los diferentes análisis realizados en los tres territorios históricos (evolución del programa Bizkaia 21, reflexión de 15 años de Agenda Local 21 en Gipuzkoa, y análisis de Diputación Foral de Álava para activar el apoyo a la realidad de sus municipios).
- Generación de conocimiento y metodología en ámbitos como los servicios ecosistémicos, el urbanismo sostenible y saludable, la adaptación al cambio climático en el ámbito local.
- Promoción de la innovación local para poder obtener financiación externa para desarrollar proyectos más integrados y ambiciosos.
- Búsqueda de la corresponsabilidad de los miembros de la red y la implicación de la sociedad en la mejora de la calidad de vida de nuestros municipios.
- Mayor colaboración con otras redes, para desarrollar proyectos conjuntos.

Por último, traslada que se convocará a finales de año un nuevo Comité Ejecutivo para la aprobación del Plan Estratégico 2020.

## 5. Colaboración con otras redes

<u>Red Navarra de Entidades Locales hacia la Sostenibilidad, Red NELS:</u>
Fernando Mendoza, alcalde de Arguedas y vicepresidente de la Red NELS, invita a las y los presentes a conocer el municipio de Arguedas, un municipio de 2.300 habitantes de la Rivera de Navarra, junto a las Bardenas Reales (declaradas por la UNESCO como Reserva de la Biosfera) y con varios atractivos como son el parque Sendaviva. Y en segundo lugar, agradece la oportunidad de participar en el encuentro ya que considera de gran importancia las redes de personas, que permiten conocerse e intercambiar experiencias.
La Red NELS se constituyó en 2005, los municipios deben tener aprobados la Carta y los Compromisos de Aalborg, y su Plan de Acción Local por pleno. El Gobierno de Navarra actúa como Secretaría Técnica, concretamente la Sección de Información y Educación Ambiental. Actualmente 185 municipios tienen Agenda Local 21 y 87 no, si bien hay procesos de AGENDA LOCAL 21 que no son municipales sino de mancomunidades, de las que se percibe una menor implicación por no liderarse directamente desde el municipio.
La estructura de la red, similar a la de Udalsarea 21, consta de una Asamblea General que se reúne una vez al año, una Comisión Rectora compuesta por un presidente y nueve vocales, que se reúnen entre dos y tres veces al año, una Comisión Coordinadora formada por la Comisión Rectora, el Gobierno de Navarra, la Federación de Municipios y Concejos de Navarra y el Observatorio Territorial de Navarra, y por último la Secretaría.
A continuación hace mención a la envidia sana que siente por Udalsarea 21 y por la estabilidad de su actividad desde los inicios hasta ahora, aspecto que no se ha dado en la Red NELS ni en otras redes regionales, especialmente en el periodo 2011-2015, debido al contexto de crisis económica. Traslada el esfuerzo realizado por los municipios en estos años, en los que han seguido ejecutando proyectos de menor coste económico, más innovadores y con mayor respaldo social.
Si bien reconoce que tras las últimas elecciones, las nuevas corporaciones han comenzado su mandato con ganas de continuar, por lo que se encuentran en un momento clave, reconsiderando las líneas de trabajo seguidas hasta hace cuatro años, y haciendo suyas las palabras expresadas por el Youth Forum en la 8ª Conferencia, de que no hay otra alternativa.
En estos momentos tienen como objetivo realizar una revisión total de las Agendas Locales 21, para lo cual solicita contar con el apoyo de la Secretaría Técnica Ihobe, con un nuevo modelo de AGENDA LOCAL 21 que requiera de menos presupuesto, y coordinándose y apoyándose en los grupos de acción social.

Traslada que el actual Observatorio del Territorio de Navarra va a evolucionar convirtiéndose en la Agencia Navarra del Territorio y Sostenibilidad.
Por último, en relación al encuentro de la Red de Redes de Desarrollo Sostenible Local mantenido el día anterior, recalca la necesidad de establecer contactos e intercambio de experiencias y promover proyectos más ambiciosos.

<u>Xarxa de ciutats i pobles cap a la sostenibilitat</u>
Inma Pruna, gerente del Servicio de Medio Ambiente de la Diputación de Barcelona, agradece a Udalsarea 21 primeramente la invitación a participar en la reunión y realiza un breve recorrido histórico de la Xarxa.
Constituida en 1997, comenzó con 118 asociados siendo actualmente 282 entidades locales de todo el territorio catalán, si bien la Secretaría Técnica la desarrolla la Diputación de Barcelona.
Comenta el camino paralelo llevado a cabo por Udalsarea 21 y la Xarxa (también la Red NELS hasta hace cuatro años), en el que contemplan el desarrollo sostenible desde una visión integral, teniendo en cuenta las tres esferas social, económica y ambiental, si bien esta última tiene mayor respaldo.
En los último seis años se han incorporado otros organismos supramunicipales a la red, como son las Diputaciones de Lleida, Girona y Tarragona, el Área Metropolitana de Barcelona, once Concejos Comarcales y la Generalitat de Cataluña, en calidad de observador.
Este hecho ha fortalezido la red ya que todos los niveles administrativos pueden compartir y trabajar conjuntamente.
La estructura de la red es similar a la de Udalsarea 21, y comenta que en febrero de 2016 se celebró la última Asamblea General en la que se aprobó el Plan Estratégico 2020 con visión a 2030, de cara a alinearse con los nuevos Objetivos de Desarrollo Sostenible y la Agenda Urbana 2030.
Por último recuerda el convenio a tres bandas firmado en su día entre las tres redes, Udalsarea 21, la Red NELS y la propia Xarxa, y considera importante recuperar los puntos de encuentro ya que permiten identificar experiencias de pequeños municipios o grandes que pueden ser de interés y verse replicados. En este sentido también, propone seguir trabajando con el resto de redes regionales en el marco de la Red de Redes de Desarrollo Local Sostenible. Si bien ahora no se ejerce una gestión institucional por parte del Ministerio de Medio Ambiente como anteriormente, se puede mantener una gestión colaborativa entre las redes en vigor. Finaliza ofreciendo la Xarxa así como la revista Sostenible como elementos de difusión de los resultados de la 8ª Conferencia.
<u>ICLEI, Red Mundial de Gobiernos Locales por la Sostenibilidad</u>
Cristina Garzillo, coordinadora del área de Gobernanza e Innovación Social, traslada que ICLEI fue fundada en 1990, cuando más de 200 gobiernos locales de 43 países se reunieron en el Congreso Mundial de Gobiernos Locales para un futuro sostenible en Nueva York, dos años antes de la Asamblea General de las Naciones Unidas de Río de Janeiro.
Hoy en día cuenta con más de 1.000 miembros a nivel mundial, de las cuales 160 son ciudades europeas.

ICLEI ofrece consultoría, capacitación y servicios de información técnica para crear capacidad, compartir conocimientos y apoyar a los gobiernos locales en la implementación del desarrollo sostenible a nivel local. Su premisa básica es que las iniciativas diseñadas y dirigidas localmente puedan proporcionar una manera eficaz y rentable para lograr los objetivos de sostenibilidad locales, nacionales y globales.
Cuenta con 17 oficinas regionales, las de Europa están situadas en Freiburg y Bruselas, sumando entre ambas 50 personas.
Entre las líneas de trabajo traslada que han pasado de 8 a 10 ámbitos de trabajo, que denominan agendas.
Por último anima a Udalsarea 21 a seguir trabajando en la misma línea y ampliando la colaboración a nivel internacional, sin perder la propia identidad.

**5. Ruegos y preguntas**

Javier Agirre, tras agradecer su participación a los representantes de las tres redes, indicando que la colaboración es sumar, da paso a un turno de preguntas.
Elena Lete, alcaldesa de Bergara, propone la posibilidad de incoporar las mancomunidades a la red, como entidades con competencias en residuos y otros ámbitos de actuación municipal.
Javier Agirre traslada que esa participación por parte de las mancomunidades y otras entidades como las agencias de desarrollo económico, es un hecho hoy en día, con su participación en el Comité Técnico y en los grupos de trabajo temáticos, si bien en la composición de Udalsarea 21 se ven respresentadas a través de los municipios que conforman dichas entidades y son miembro de la red.
Por su parte, Carlos Totorika alcalde de Ermua, en relación al proceso de revisión de las DOT pregunta cómo se contempla la actuación sobre las zonas industriales y también ciertas zonas residenciales que no cumplen requisitos, ya que ahora no se cuenta ni se va a contar con los recursos derivados del urbanismo con los que se contaba hasta ahora.
Ana Oregi traslada que la regeneración de los tejidos es una de las políticas fundamentales en la revisión, indicando que el modelo de extensión está agotado y ahora se impone el modelo de regeneración, para lo cual se sigue contando con las mismas herramientas si bien no con las plusvalías que antes éstas generaban.
Comenta que el reto es el lanzamiento de proyectos piloto que permitan cubrir esas necesidades, y para ello se debe tener la mirada puesta en Europa, donde todas las administraciones están escasas de recursos, no esperando a subvenciones sino al fomento de la participación público-privada. Es necesario explorar las oportunidades que la eficiencia energética y de recursos nos otorga.
Por su parte Izaskun Iriarte recalca la importancia de este proceso de revisión de las DOT, un proceso que tiene un horizonte a largo plazo, 2020, en el que se deberán desarrollar nuevos recursos y normativas.

**6. Cierre de la reunión.**

Una vez finalizado el turno de preguntas Javier Agirre da por terminado el encuentro, agradeciendo a las y los presentes su participación e invitando a la realización de una foto de grupo.

**Bildutako organoa:** Udalsarea 21en batzorde exekutiboa

**Bileraren koordinatzailea**: Ihobe, Idazkaritza Teknikoa

**Data:** 2016ko apirilaren 27a
**Ordua:** 16:30ean
**Tokia:** Euskalduna jauregia, Hiri eta Herri Jasangarrien 8. Konferentzia, Bilbo

**Bertan izan dira:**

| Entitatea | Izena | Abizena 1 | Abizena 2 |
|---|---|---|---|
| Ayto. de Abanto y Ciervana-Abanto Zierbena | Maite | Etxebarria | Azpioleta |
| Ayto. de Amurrio | Josune | Irabien | Marigorta |
| Ayto. de Arrankudiaga | Itziar | Duoandikoetxea | González |
| Ayto. de Arrigorriaga | Carlos | Atucha | Gurtubai |
| Ayto. de Azpeitia | Aitor | Bereziartua | |
| Ayto. de Balmaseda | Álvaro | Parro | Betanzos |
| Ayto. de Barakaldo | Gorka | Zubiaurre | |
| Ayto. de Basauri | Joseba Andoni | Busquet | Elorrieta |
| Ayto. de Beasain | Leire | Artola | |
| Ayto. de Berango | Itziar | Aginagalde | |
| Ayto. de Bergara | Elena | Lete | García |
| Ayto. de Bermeo | Idurre | Bideguren | |
| Ayto. de Derio | Endika | Cienfuegos | |
| Ayto. de Donostia-San Sebastián | Miguel Angel | Diez | Bustos |
| Ayto. de Ermua | Carlos | Totorika | Izaguirre |
| Ayto. de Etxebarri | Loren | Oliva | Santamaría |
| Ayto. de Etxebarria | Jesús | Iriondo | Lejardi |
| Ayto. de Galdakao | Ibon | Uribe | Elorrieta |
| Ayto. de Galdakao | Ruben | Seoane | Rivero |
| Ayto. de Gernika - Lumo | María | Uribe | |
| Ayto. de Gordexola | Angela | Eguia | Liñero |
| Ayto. de Hondarribia | Juan Luis | Silanes | Aguirre |
| Ayto. de Ispaster | Garbiñe | Saez de Buruaga | Garralda |
| Ayto. de Laukiz | Salbador | Artaza | Argintxona |
| Ayto. de Lezama | Jon Ander | Aurrekoetxea | Artetxe |
| Ayto. de Llodio | Miren | Larrinaga | Enbeitia |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Ayto. de Llodio | Natxo | Urkixo | Orueta |
| Ayto. de Loiu | Josu Andoni | Begoña | Fernández de Arroiabe |
| Ayto. de Mallabia | Igor | Agirre | Barrientos |
| Ayto. de Mañaria | Endika | Jaio | |
| Ayto. de Maruri-Jatabe | Isaac | Amezaga | Larrazabal |
| Ayto. de Mungia | Ager | Izagirre | Loroño |
| Ayto. de Muskiz | Borja | Liaño | Abarrategi |
| Ayto. de Ordizia | Jose Miguel | Santamaria | Ezeiza |
| Ayto. de Orio | José Ángel | Zaldua | Iparraguirre |
| Ayto. de Santurtzi | Aintzane | Urkijo | Sagredo |
| Ayto. de Sondika | Xabier | Zubiaur | Agirre |
| Ayto. de Tolosa | Olatz | Peon | Ormazabal |
| Ayto. de Tolosa | Patxi | Amantegi | Zubiria |
| Ayto. de Trucios-Turtzioz | Jose Manuel | Coterón | Fernández |
| Ayto. de Zamudio | Igotz | Lopez | Torre |
| Ayto. de Zaratamo | Jon | Ajuria | Fisure |
| Ayto. de Zarautz | Gloria | Vazquez | Herranz |
| Diputación Foral de Alava | Amaia | Barredo | Martin |
| Diputación Foral de Gipuzkoa | Felix | Asensio | |
| Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco | Ana | Oregi | Bastarrika |
| Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco | Alexander | Boto | Bastegieta |
| Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco | Alejandra | Iturrioz | Unzueta |
| Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco | Fernando | Uriondo | Ispizua |
| Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco | Marko | Boronat | Elizalde |
| EVE - Ente Vasco de la Energía | Iñaki | García | |
| EVE - Ente Vasco de la Energía | Javier | Marqués | |
| Ihobe | Javier | Agirre | Orcajo |
| Mancomunidad de la Merindad de Durango | Aitor | López | |
| Mancomunidad de las Encartaciones | Esther | Lasa | |
| Mancomunidad de Servicios del Txorierri | Miguel Angel | Gaztelu | |
| URA Agencia Vasca del Agua | Iñigo | Ansola | |

## GAI-ZERRENDAREN ARABERA LANDUTAKO GAIAK

### 1.- Ongietorria eta saioaren hasiera

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Plangintzako sailburu Ana Oregik ongietorria eman eta bertaratzea eskertu die sarearen izenean.
Jarraian, sarearen idazkaritza teknikoa betetzen duen Ihobe Sozietate Publikoaren zuzendari Javier Agirrek gai-zerrenda irakurri du.

### 2.- Eusko Jaurlaritzaren X. Legegintzaldiko ingurumen-lehentasunak

Ana Oregi sailburuak hitzari berriro helduta topaketa Hiri eta Herri Jasangarrien 8. Konferentziaren esparruan egiteko aukera nabarmendu du, non ICLEI Jasangarritasunerako Tokiko Gobernuen Munduko Sareak Euskadi aukeratu zuen hura egiteko. Sarearen 15 urteko ibilbideari eta haren kideei, udalerriei, agertutako errekonozimenduaren erakusle da hautaketa hori. Euskadiren izena tokiko jasangarritasunarenari lotuta gelditu da Euskadiko Adierazpenaren bitartez. Konferentzian Europako hiri eta herrientzat onartutako ibilbide-orri berria da hori.
Batzorde Exekutibo honetara etorri aurretik, alkateen topaketan izan dela adierazi du (Mayors Sessions). Marku Markkula Eskualdeetako Lantaldeko presidentea izan da ICLEIk konferentzia honetara etorri diren udalerri nagusietako ordezkariekin antolatu duen bilera horren buru, eta sare honetako presidente den aldetik gonbidatu dutela esan du.
ICLEIk antolaturiko bilera horretan gure herri eta hirietan eragin zuzena izango duten esparru-politikak aurkeztu dira, Europako Hiri Agenda berriari atentzio berezia emanez.
Geroago, Batzorde Exekutiboaren aurreko bileran (2014ko uztaila, Amurrio) finkatutako erronkak ekarri ditu gogora, zehazki US21 sare ireki bihurtzea, euskal administrazio publikoa modernizatzen laguntzea eta administrazioaren eta gizartearen arteko gobernamendua eta kontratu berria gauzatzea, baita Euskadi jasangarritasun-politikak eraginkortasunez aplikatzearen nazioarteko erreferente gisa proiektatzea ere. Horien guztien betetze-mailaren gaineko balantze positiboa egin du, halaber.
Horren froga da gaur sarean kide berriak sartuko direla eta Tokiko Jasangarritasunaren V. Txostena jada badagoela. ICLEIren konferentzia antolatzea bera, bestalde, Udalsarea 21en lanari nazioartean egin dakiokeen errekonozimendu onenetako bat ere bada, eta jarraitu beharreko erreferentzia modura kokatzen du munduan.
Konferentzia honetan presente egongo den gai bat, dudarik gabe, tokiko jasangarritasun-politikak biltzen dituen nazioarteko esparrua dela esan du, esate baterako Europako Hiri Agenda, Nazio Batuen Elkartearen Garapen Jasangarriaren 2030erako Agendaren helburuak edota Pariseko Klimaren Munduko Gailurretik eratorritako akordioak, Eusko Jaurlaritzak sinatu dituenak. Esparru horrekin bat etorriz, Euskadik esparru estrategiko zabala du, bileran emandako dokumentazioan jasota dagoen moduan, eta udalerriek hura diseinatzeko izandako funtsezko eginkizuna azpimarratu du, baita aplikatzeko orduan izango dutena ere.
Euskadiko ingurumen-plangintzarako tresna nagusia Ingurumen Esparru Programa 2020 dela nabarmendu du, hori Jaurlaritzak euskal gizartearen aurrean hartutako konpromisoen ardatza osatzen duten 14 plan estrategikoetako bat izanik. Programa horrek ingurumen-politika erreaktibo batetik ingurumen-erronkei aurrea hartzeko politika batera igarotzea dakar. Erronka horiek bikotetan adierazita daude:

- kapital naturala eta biodibertsitatea,
- energia eta klima-aldaketa,
- osasuna eta ingurumena,
- lurralde eta baliabideen eraginkortasuna,

- hezkuntza eta etorkizuneko belaunaldiekiko konpromisoa
- gobernamendua eta erantzunkidetasuna.

Programa horretaz gain jada onartutako estrategiak ere badaude, hala nola KLIMA 2050, klima-aldaketaren aurkako estrategia, edota geodibertsitatearekin lotutakoa. Gainera, badira oraindik egiten ari diren beste estrategia batzuk ere: 2030erako biodibertsitatearena, 2030erako lurzorua babestekoa eta jasangarritasunerako hezkuntzarena. Estrategia horiei 2020rako Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planaren onarpena gehitu behar zaie, bai eta Lurraldea Antolatzeko Gidalerroen berrikuspena ere.
Azken horri lotuta, adierazi du Lurraldea Antolatzeko Gidalerroak berrikusi behar dituztela Euskadiko Lurralde Estrategia 20 urteko horizonte baterako diseinatzeko, eta prozesu horretan Udalsarea 21eko kide guztien lankidetza eta ekarpenak eduki nahi dituztela.
Amaitzeko, Ana Oregik helburu estrategiko horiek guztiak udalen eguneroko politika eta kudeaketan txertatzea aholkatu du, eta azkenik Eusko Jaurlaritzaren izenean berriro ere eskertu du udalerriek sarearekin eta konferentziaren antolaketarekin izandako inplikazio eta konpromisoa, Euskadi jasangarritasunaren arloko nazioarteko erreferente bihurtu bada haren kideen lanari esker izan baita.

**3. Lurraldea Antolatzeko Gidalerroak berrikusteko prozesua**

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Plangintzako sailburuorde Izaskun Iriartek hitza hartu eta jakinarazi du Gobernu Kontseiluak Lurraldea Antolatzeko Gidalerroak berrikusteari ekitea erabaki zuela 2015eko uztailean. Berrikuspen horrek herritarren partaidetza eta gobernamenduaren berrikuntza zein sustapena izango ditu oinarri.
Horri dagokionez, Euskadiko Lurralde Antolamendurako maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak finkatutako prozedura parte-hartze integralera (hasieratik amaierara) egokitzeko egindako ahaleginaren berri eman du.
Gizartearen partaidetza bultzatzen da eta hiru urteko epea ezartzen da prozesu osoa amaitzeko; Euskal Hiria izeneko kongresua egingo dela baliatuko da, orobat, (urtero urte bukaeran izan ohi da urtero) haren egoera eta izapidetzeko eman beharreko urratsak jakinarazteko.
Jokatzeko modu berria nabarmentzen da; hori dela eta, sailek egindako ekarpenak biltzen dituen Eusko Jaurlaritzaren proposamena 2015eko azaroan aurkeztutako oinarrizko dokumentua da, eta parte-hartzera zabalik dago. Helburua aurrerapena aurtengo azaroan onartzea da. Modu horretan LAGen behin betiko bertsioa 2018ko azaroan aurkeztuko da.
Jakinarazi duenez, uneotan erakundeak eta organoak parte hartzen ari dira. Prozesu hori udalerriekin Eudelen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen bidez egingo da, baita Udalsarea 21en bidez ere; hala bada, berariazko lantalde bat osatuko da, 2016an bi bilera egitea aurreikusita.
Azkenik, gizarteak parte hartzeko aurrez aurreko bilerak hartzen dituzten udalei eskerrak eman dizkie (15 bilera funtzio-arloetan), eta lokalak lagatzeko zein topaketa horren berri emateko udalen aldetik jasotako lankidetza eskertu du.
Azkenik, gogora ekarri du Irekia eta Ingurumena atarietan erreferentziako informazio eta dokumentazio guztia egongo dela ikusgai (aktak, egindako ekarpenak eta abarrak, besteak beste).

**4. Udalsarea 21en araudi-esparru berria. Sarearen plan estrategikoaren 2020rako kronograma**

Topaketaren helburu nagusia zein den gogorarazi du Javier Agirrek lehenik; alegia, euskal administrazioaren maila guztiek Udalsarea 21 plataformarekin hartutako konpromisoa indartzea, erakundearteko lankidetzaren eredu arrakastatsu modura eta udalek jasangarritasunaren arloan jarduteko plataforma gisa.
Udalsarea 21 guztira16 udalerrik eratu zuten 2002ko abenduaren 20an, gaur egun, ordea, hauek osatzen dute sarea: protagonista nagusiak diren 203 udalerrik, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak, Garraioen Zuzendaritzak eta Uraren Euskal Agentziak (URA) ordezkatuta, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publiko Ihobek.
Hain zuzen, erakundearteko lankidetza hori dela elementu giltzarria ekarri du gogora, sarea mugiarazten duena eta ahalegin guztiak bildu eta helburu batera bideratzen dituena, EAEko udalerrietan benetako garapen jasangarria lortzeko. Udalerri-kideen profilak oso ezberdinak izan arren, adibidez, Euskadiko hiriburuenak eta landa-inguruetako herri txikienak, lan-espazioak eta guztientzako aberasgarriak diren esperientziak partekatzen dituzte.

Sarearen jarduera biziaren erakusgarri da Batzorde Teknikoak 50. bilera egingo duela laster, hain zuzen, 2016ko ekainaren 15ean, Iruraitz-Gaunan.
Azken Batzorde Exekutiboan 2014-2015 aldirako Kudeaketa Plana onartu zela eta horretan hainbat erronkari heldu ziotela ekarri du gogora. Landu beharreko ildo garrantzitsuena sarean udalerri gehiago hartzea da, eta bigarrena euskal eragile publiko guztiei irekitzea. Bi alderdi horietan aurrerapenak lortu dira; gaur egun sarea osatzen duten 203 udalerriak dira horren erakusgarri, baita topaketa horretan foru-aldundiek eta Energiaren Euskal Erakundeak parte hartzea ere, sarean parte-hartze aktiboa izatea eskatu duten administrazioak baitira.
Udalsarea 21 arautzen duen aurreko esparrua 2015eko abenduaren 31n amaitu zela jakinarazi du. Horregatik guztiagatik, sarearen Idazkaritza Teknikoak sorrerako hasierako testua inspirazio-iturri duen erregulazio berria proposatu du, administrazioaren maila guztien adostasuna lortu zuelako eta hainbat erakunderekin egiaztatu delako. 2020ra arteko indarraldia izango du horrek, eta automatikoki berrituko da aldeek hala erabakiz gero.
Esparru berri horrek kudeaketa-organo nagusi berberak ditu: batzorde exekutiboa, batzorde teknikoa eta gaikako lantaldeak (azken horiek lana arintzen eta udalerriek dagozkien Tokiko Ekintza Planetan biltzen dituzten ekintzak eraginkortasunez ezartzen laguntzen dute, aurretik aipatutako LAGak berrikusteko lantaldea kasu); eta idazkaritza teknikoa oraingoan ere Ihobe da.
Sarea kudeatzeko aurrekontuari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren ekarpen nagusiari eutsi zaio -Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren bitartez eginda-, baita Eusko Jaurlaritzako Sailak ez diren udalez gaindiko beste administrazio batzuen ekarpenei ere, kuota edo baterako finantzaketa modura; horrelakoek 15.000 euroko ekarpena egiten dute urtean. Udalei dagokienez, berriz, kuotak kentzen dira.
Horrenbestez, Euskadiko administrazio guztiak Udalsarea 21ekin bat egitera gonbidatu ditu, 2016ko ekainaren 30ean ahalik eta atxikipen kopururik handiena izan dadin, eta 2020rako Plan Estrategikoa elkarrekin prestatzeko, EAEko toki-erakundeen eskaerei eta beharrei elkarrekin erantzuteko.
Dokumentu hori lantzen 2016ko irailean hasiko da. Hauek dira haren ezaugarri nagusiak:
- Sareko lana irekia izatea, udalerriei tokiko jasangarritasun-politikak lantzen laguntzeko.
- Nazioarteko eta eskualdeko marko estrategikoekin lerrokatuta egotea (Garapen Jasangarriko Helburu berriekin, Europako hiri-agenda berriarekin eta Euskal Adierazpenarekin berarekin, hau da, «Europa bizigarri eta inklusibo baterako udalerri produktibo, jasangarri eta erresilienteak sortuz Europako hiri eta herrientzako bide-orri berria» izenekoarekin).

- Hiru lurralde historikoetan gauzatutako azterketak kontuan hartzea (Bizkaia 21 programaren bilakaera, Gipuzkoako Tokiko Agenda 21en hamabost urteko lanaren hausnarketa eta laguntza udalerrien egoerara moldatzeko Arabako Foru Aldundiak egindako azterketa).
- Zerbitzu ekosistemikoak, hirigintza jasangarri eta osasungarria, eta tokian-tokian klima-aldaketara egokitzea bezalako arloetan ezagutzak eta metodologiak sortzea.
- Tokiko berrikuntza sustatzea proiektu integratu eta asmo handiagokoak gauzatzeko beharrezko kanpoko finantziazioa lortze aldera.
- Sareko kideen erantzukidetasuna eta gizartearen inplikazioa bilatzea, gure udalerrietako bizi-kalitatea hobetzeko.
- Beste sare batzuekin harreman estuagoa izatea, elkarrekin proiektuak gauzatu ahal izateko.

Azkenik, jakinarazi du urtearen amaieran batzorde exekutibo berri bat deituko dutela 2020rako Plan Estrategikoa onartzeko.

## 5. Beste sare batzuekiko lankidetzan

Jasangarritasunerako Nafarroako Toki Entitateen Sarea, NELS sarea:
Arguedasko alkate eta NELS sareko presidenteorde Fernando Mendozak bertaratutakoak Arguedasko udalerria ezagutzera gonbidatu ditu. Nafarroako Erriberako 2.300 biztanleko udalerri bat da, Bardeetako Natura Parkearen ondoan (UNESCOk Biosfera Erreserba izendatuta), eta hainbat erakargarri dituena, Sendaviva parkea esaterako. Bigarrenik, topaketan parte hartzeko aukera eskertu du, pertsonen sareei oso garrantzitsu baiteritze, elkar ezagutzeko eta esperientziak trukatzeko aukera ematen baitute.
NELS sarea 2005ean eratu zuten. Aalborgeko Konpromisoak zein Tokiko Ekintza Plana osoko bilkurak onetsita eduki behar dituzte kide diren udalerriek. Nafarroako Gobernuak, zehazki Ingurumen Informazio eta Hezkuntza Atalak, Idazkaritza Tekniko gisa jarduten du. Gaur egun 185 udalerrik Tokiko Agenda 21 dute, eta 87k ez; halere TA21 prozesu batzuk ez dagozkio udalei, mankomunitateei baizik; haietatik inplikazio txikiagoa sumatzen da, udalerria ez baita zuzenean prozesuaren buru izaten.
Sarearen egitura Udalsarea 21enaren antzekoa da; hauek osatzen dute zehazki: urtean behin biltzen den batzar nagusi batek, presidente bat eta bederatzi kide dituen batzorde zuzentzaile batek (urtean bizpahiru aldiz biltzen dira), batzorde koordinatzaile batek (haren barruan: batzorde zuzentzailea, Nafarroako Gobernua, Nafarroako udalerrien eta kontzejuen federazioa eta Nafarroako Lurralde Behatokia), eta, azkenik, idazkaritzak.
Udalsarea 21i zein hasieratik orain arte haren jarduerak izandako egonkortasunari inbidia diela aipatu du ondoren, NELS sareak -ezta eskualdeko beste sare batzuek ere- ez baitu halakorik izan, bereziki 2011-2015 aldian, krisialdi ekonomikoagatik. Udalerriek urteotan egindako ahaleginaren berri eman du, kostu ekonomiko txikiagoko proiektuak, berritzaileagoak eta gizartearen babes handiagokoak egin baitituzte horietan.
Halere, onartu du azken hauteskundeen ostean udalbatza berriek jarraitzeko gogoz hasi dutela agintaldia; horrenbestez, funtsezko une batean daude, orain dela lau urtera arte jarraitutako lan-ildoak berriro pentsatzen ari dira eta 8. Konferentzian Youth Forumek adierazitako hitzak bere egin dituzte, hau da, ez dagoela beste aukerarik.
Uneotan Tokiko Agenda 21ak guztiz berrikustea dute helburutzat, eta horretarako Ihobe Idazkaritza Teknikoaren laguntza eskatu du, aurrekontu txikiagoa behar duen TA21en eredu berri bat lortzeko, eta gizarte-ekintzako taldeekin koordinatuz eta horietan oinarrituz.
Egungo Nafarroako Lurraldearen Behatokia Lurralde eta Jasangarritasuneko Nafarroako Agentzia bihurtuko dela jakinarazi du.
Azkenik, aurreko egunean eginiko Tokiko Garapen Jasangarrirako Sareen topaketari dagokionez, harremanak egin eta esperientziak trukatzeko zein asmo handiagoko proiektuak bultzatzeko beharra nabarmendu du.

<u>Xarxa de ciutats i pobles cap a la sostenibilitat</u>
Bartzelonako Diputazioko Ingurumen Zerbitzuaren kudeatzaile Inma Prunak bileran parte hartzera gonbidatu izana eskertu dio lehenik Udalsarea 21i, eta Xarxaren ibilbide historikoa laburbildu du gero.
1997an sortu zuten 118 bazkidek, eta gaur egun Kataluniako 282 toki-erakunde hartzen ditu barne. Idazkaritza Teknikoa Bartzelonako Diputazioak egiten du, halere.
Udalsarea 21ek eta Xarxak (baita NELS sareak ere duela lau urtera arte) bide paraleloa egin dutela adierazi du. Bide horretan garapen jasangarria ikuspegi oso batetik begiratuta lantzen dute, hiru arloak (gizartea, ekonomia eta ingurumena) kontuan hartuta, baina hirugarrenak, dena den, babes handiagoa du.
Azkeneko sei urteotan udalez gaindiko beste erakunde batzuk sartu dira sarean, hala nola Lleida, Girona eta Tarragonako Diputazioak, Bartzelonako metropolialdea, eskualdeko hamaika kontzeju eta Kataluniako Gobernua (behatzaile gisa).
Sarea indartu du horrek, administrazio-maila guztiek elkarrekin lan egin eta partekatu baitezakete.
Sarearen egitura Udalsarea 21enaren antzekoa da. Azaldu du, orobat, 2016ko otsailean egin zutela azken batzar nagusia eta orduan 2020rako Plan Estrategikoa 2030era begira onartu zutela, Garapen Jasangarriaren Helburu berriekin zein 2030erako Hiri Agendarekin lerrokatzearren.
Azkenik, hiru sareek –Udalsarea 21ek, NELS sareak eta Xarxak berak– bere garaian sinatutako hiruko hitzarmena ekarri du gogora, eta elkargunerako puntuak berreskuratzeari garrantzitsu iritzi dio, horrela interesgarriak izan daitezkeen udalerri txiki edo handien esperientziak identifikatu eta errepikatu baitaitezke. Ildo horretatik, Tokiko Garapen Jasangarrirako Sareen Sarearen barruan eskualdeko gainerako sareekin lanean jarraitzea proposatu du. Ingurumen Ministerioak orain lehen egiten zuen kudeaketa instituzionala egiten ez badu ere, indarrean dauden sareen arteko lankidetzako kudeaketa egon daitekeela azaldu du. Amaitzeko, Xarxa eta *Sostenible* aldizkaria eskaini ditu 8. Konferentziaren emaitzak hedatzeko.

<u>ICLEI, Jasangarritasunerako Tokiko Gobernuen Munduko Sarea</u>
Gobernamendu eta Gizarte Berrikuntza arloko koordinatzaile Cristina Garzillok ICLEI 1990ean sortu zutela adierazi du; orduan 43 herrialdetako 200 toki-gobernu baino gehiago bildu ziren Toki Gobernuen Munduko Kongresuan, New Yorken, Rio de Janeiroko Nazio Batuen Batzar Nagusia egin baino bi urte lehenago.
Gaur egun 1.000 kide baino gehiago ditu mundu osoan, eta horietatik 160 Europako hiriak dira.
ICLEIk aholkularitza, gaikuntza eta informazio teknikoko zerbitzuak eskaintzen ditu gaitasuna sortzeko, ezagutza partekatzeko eta toki-gobernuei garapen jasangarria tokian-tokian ezartzen laguntzeko. Tokian-tokian diseinatu eta zuzendutako ekimenek tokian tokiko, nazioko eta munduko jasangarritasun-helburuak lortzeko modu eraginkor eta errentagarria eman ahal izatea du oinarrizko premisatzat.
Eskualdeko 17 bulego ditu. Europan haren bulegoak Friburgo eta Bruselan daude, eta 50 pertsona aritzen dira bi bulego horietan.
Lan-ildoak 8tik 10era igaro direla zehaztu du (agenda esaten diete horiei).
Azkenik, orain bezala lan egitera animatu du Udalsarea 21, eta nazioartean lankidetza handitzen jarraitzera, berezko nortasuna galdu gabe.

**5. Eskaerak eta galderak**

Javier Agirrek hiru sareen ordezkariei parte hartzea eskertu die, eta lankidetza batzea dela adierazi du; ondoren, galderen txanda ireki du.
Bergarako alkate Elena Letek sarean mankomunitateak ere hartzea proposatu du, erakunde horiek hondakinen arloan zein udal-jardunaren bestelako esparruetan eskumenak baitituzte.
Javier Agirrek adierazi du mankomunitateek eta beste erakunde batzuek (garapen ekonomikorako agentziek kasu) gaur egun jada parte hartzen dutela, batzorde teknikoan eta gaikako lantaldeetan besteak beste, baina Udalsarea 21en osaeran erakunde horiek osatzen dituzten eta sareko kide diren udalerrien bidez ordezkatuta daudela.
Ermuko alkate Carlos Totorikak, berriz, LAGak berrikusteko prozesuari dagokionez, industrialdeetan eta baldintzak betetzen ez dituzten bizitegi-zona batzuetan nola esku hartu behar den galdetu du, orain ez baitaude eta ez baitira egongo orain arte hirigintzatik lortzen ziren baliabideak.
Ehunak berroneratzea berrikustearen funtsezko politiketako bat dela erantzun du Ana Oregik; hala, hedatzeko eredua agortuta dagoela eta orain berroneratzeko eredua nagusitu behar dela esan du, eta horretarako lehengo tresna berak daudela, baina ez, ordea, lehen sortzen zituzten gainbalioak.
Erronka behar horiei erantzuteko aukera ematen duten proiektu pilotuak abian jartzea dela azaldu du, eta, horretarako, Europari begiratu behar zaiola, administrazio guztiak baliabidez urri baitaude, baina ez diru-laguntzen zain, partaidetza publiko-pribatuaren sustapenaren bila baizik. Energiaren zein baliabideen eraginkortasunak ematen dituen aukerak arakatu beharra dago.
Izaskun Iriartek LAGak berrikusteko prozesu horren garrantzia nabarmendu du. Epe luzeko horizontea du (2020), eta aldi horretan baliabide eta araudi berriak garatu beharko dira, haren iritziz.

## 6. Bilera amaitzea

Galderen txanda amaitu ondoren, Javier Agirrek topaketa bukatutzat eman du, eta, bertaratutakoei parte hartzea eskertu ondoren, taldeko argazkia egitea proposatu du.